

DONOSTIAKO UDALBATZARI

Udal Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 91.5 artikulua oinarri, **PROPOSAMEN** hau aurkezten du, **Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Bereziaren berrikuspena** dela eta, osoko bilkuran azter dadin.

Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia (EPPO) 2014. urtean onetsi zen behin betiko, hamar urteko tramitazioaren ondoren.

2017an, aldaketa bat egin zen, eta berriz aztertu ziren 90 eraikin, denak ere dokumentuan sartu zirenak katalogoa prestatzeko uneren batean baina behin betiko bertsioan kanpoan geratu zirenak. 90 eraikin horietatik 47 babestu ziren azkenean (horien artean, Ondarretako 15 etxe). Higiezin horiek –ia ehun-berrikusteko prozesuan, 600 bat alegazio izan ziren, inoiz babestuta egon ez ziren eraikin batzuk Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezian sar zitezela eskatzeko. Hori dela eta, Udal Gobernuak erabaki zuen EHOBPP osoaren berrikuspen formal bat sustatzea, proposamen horiek guztiak eztabaidatzeko.

2018ko uztailean, Udalak EHOBPParen berrikuspenaren erredakzio tekniko esleitu zion Luis Sesé arkitekto doktore eta Arkitektura Eskolako irakasleari, bera izan baitzen jatorrizko babes planaren erredaktoreetako bat. Txostena 2019ko maiatzean aurkeztu zuen hark.

2018ko urrian, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen kautelazko moratoria bat ematea Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia (EHOBPP) berrikusteko prozesuan babestekoak izan zitezkeen eraikinak eraisteko lizentziei.

Otsailaren 8an bukatuko da eraispenak urtebetez eteteko kautelazko moratoria; beraz, EHOBPParen berrikuspenari hasierako onespina ematen ez bazaio, moratoria bertan behera geratuko da eta interes historikoko 200 eraikin baino gehiago eraitsi ahal izango dira.

PREMIAZKOTZAT jotzen dugu Udalbatzak hasierako onespina ematea EHOBPParen berrikuspenari, Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Bereziaren behin betiko onespina azkartzeko, arriskuan baitago Donostiako ondare historikoa.

Gainera, 2019ko abenduaren 4an jakin genuen Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak indargabetu egin nahi duela Donostiako Udalaren kautelazko moratoria, zeinaren bidez urtebetez eten baitira Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia berrikusteko prozesuan babestekoak izan litezkeen eraikinak botatzeko lizentziak.

Epai horretan, Donostiako Epaitegiak indarrrik gabe utzi du neurri hori, eta oso-osorik baietsi du Berme 2007 enpresak jarritako errekurtsioa. Enpresa hori La Fe pasealekuko etxe baten jabea da, eta zuzenean eragiten dio Tokiko Gobernu Batzarrak duela urtebete hartutako akordioak.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 91.5 artikulua hau ezartzen du:



5.- Administrazio espedientea abiarazi eta oraindik amaitu gabeko gaiei buruzko proposamenek, hain zuzen, berori amaitzeko erabaki proposamena jaso beharko dute, Udalbatzan eztabaidatu eta hasierako zein behin betiko bozketa egin ahal izateko; betiere, aldeko nahitaezko txostenak edukita.

Horregatik, hau da Talde Popularrak Udalbatzari egiten dion

PROPOSAMENA

- Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia (EHOBPP) berrikusteko hasitako administrazio espedientea bukatzeko agintzea, espedienteak aldeko txostenak izan bezain laster osoko bilkurara igor dadin, horren gainean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 16a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularra udal taldearen bozeramailea